

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IEKORAKO UDALA

Jendaurrean jartzea zabor bilketaren tasaren 2020ko errolda

lekorako zabor bilketaren 2020ko tasaren errolda eginik, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta, hala badagokio, egoki jotzen dituzten alegazioak eta erreklamazioak aurkezteko.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan kobratuko dira ordainagiriak, bankuan helbideratuta.

Borondatezko epean ordainketarik egin ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

lekora, 2020ko maiatzaren 28a

Alkatea

RAFAEL FERNÁNDEZ JALÓN